

*norbera*

Empty rounded rectangular box for notes.

*hitza*

- ▶ **E**rakusketa ikusi ostean, idatz itzazu hark iradoki dizkizun 3 edo 4 hitz, eta osa ezazu izenburu berri bat horiekin.
- ▶ **B**ila ezazu giza-irudirik gabeko lanen bat, eta pentsa ezazu zein zapore eta usainekin lotuko zenukeen. Ausart zaitetz zapore eta usain horiekin plater bat sortzen, eta deskriba ezazu esaldi bakar batean.
- ▶ **B**ila itzazu lanen batean elkarren artean loturiko figurak eta azaldu ahoz elkarren arteko harremana.

*norbera*

Empty rounded rectangular box for notes.

*galderak*

- ▶ **P**iezetan adierazitako figuren artean, zeinekin identifikatzen zara gehien? Zergatik?
- ▶ **Z**ein kolore baliatuko zenuke zure egungo egoera adierazteko? Zergatik?
- ▶ **Z**er emozioekin lotzen dituzu Aizpearen marrazkietako elementu arkitektonikoak?

*norbera*

Empty rounded rectangular box for notes.



AIZPEA LASA VILLA  
HAU ORAIN DA

PROIEKTUA:



LAGUNTZAILEAK:



*plastika*

- ▶ **A**dieraz ezazu zure beldurretako bat, trazu edo/eta koloreen bitartez. Nahi baduzu, gehitu ezazu esaldiren bat.
- ▶ **S**or ezazu zure fanzine autobiografiko txikia: toles ezazu folio bat 4 zatitan, eta idatzi edo marraztu horietako bakoitzean zure orainari buruzko zerbait: zure oraineko pertsona, objektu, leku, sentsazio, pentsamendu eta abarrei buruz....

*gorputza*

- ▶ **H**auta ezazu erakusketako figuraren bat, iradokitzailea zure ustein. Jar zaitez figura horren lekuan, eta eman bizitza eta ahotsa haren sentimendu eta emozioei (zer esango lukete, nola mugituko lirateke...).
- ▶ **I**bili zaitez erakusketan zehar lepondoan aurpegia bazenu bezala.
- ▶ **E**tzan zaitez aretoaren erdian dauden aurpegien ondoan, eta hasi zaitez haiekin berriketan.



AIZPEA LASA VILLA  
HAU ORAIN DA

*norbera*

*norbera*

*proposamena*

**D**inamikak egin eta gero, bizi izandako esperientzia eta, agian, argazkiren bat geratuko zaizkizu. Proposamen bat egingo dizugu: partekatu esperientzia honen ondorioak sare sozialetan, **#cadacualaipelasavilla** traola erabiliz.